



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

VI. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2025eko maiatzaren 28, 29 eta 30a
Bilbo, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 4.0

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Nazio(nalismo)a eta generoaren
arteko hartu-emanak. Euskal
Herriko kasua**

Maddi Alberdi San Martin

11-18 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.vi.02.01>

ANTOLATZAILEA



BABESLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



LAGUNTZAILEAK



Universidad
de Navarra



Deusto
Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea



MONDRAGON
UNIBERTSITATEA



upna
Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa



Nazio(nalismo)a eta generoaren arteko hartu-emanak. Euskal Herriko kasua

Maddi Alberdi San Martin

*EHUko Gizartea, Politika eta Kultura Doktorego Programako doktoregaia. Parte Hartuz
ikerketaren taldeko kidea*

maddi.alberdi@ehu.eus

Laburpena

Ikerketaren honek euskal nazionalismoaren eta generoaren arteko elkarrekinak aztertzea du helburu, eta, horrela, nazio eta nazionalismoaren ikerketetan genero ikuspegia integratzearen garrantzia azpimarratzea. Doktoretza tesiaren forma izango duen ikerketa honetan, Euskal Herrian emakume abertzaleek subjektu gisa nazioaz duten ikuspegia aztertuko da, bereziki, nazioa nola ulertzen eta bizi duten, eta zein diskurtso eraikitzen dituzten. Halaber, euskal mugimendu nazionalistaren baitan emakumeen parte-hartzea eta rola ere aztertuko dira, baita feminismoek horietan duten eragina ere. Azterketa honek, emakumeen narratibetatik, nazionalismoaren eta generoaren arteko harremana ulertzeko hutsunea bete nahi du, akademia zein gizarte mailan.

Hitz gakoak: nazioa, nazionalismoa, generoa, Euskal Herria, feminismoa

Abstract

This research aims to explore the interactions between Basque nationalism and gender, emphasizing the importance of integrating a gender perspective into the study of nations and nationalism. Designed as a doctoral thesis, this study will examine how nationalist women in the Basque Country perceive the nation as subjects, focusing on how they understand and experience the nation, as well as the discourses they construct. Additionally, it will investigate women's participation and roles within the Basque nationalist movement, alongside the influence of feminist movements on these dynamics. Centering women's narratives, this research seeks to address a gap in understanding the relationship between nationalism and gender, both in academia and in broader society.

Keywords: nation, nationalism, gender, Basque Country, feminism

1. Sarrera eta motibazioa

Nazio eta nazionalismo ikerketetan genero ikuspegiaren hutsunea nabarmena zela ohartuta zehaztu zen ikerketarako gaia. Subiranotasuna Europako Herrietan masterra amaitu berritan, nazionalismoen eta genero-sistemen artean antzekotasunak identifikatu ziren: gizarte eraikuntzak, botere-harremanak eta “besteekiko” kontrastea, besteak beste. Horregatik, nazioaren eta generoaren arteko harremana arakatu eta elkarrekinak identifikatu nahi dira ikerketa honetan. Markoa Euskal Herrian kokatzeak ezaugarri bereziak esleitzen dizkio ikerketari. Gainera, azken urteetan euskal gatazkaren irakurketa feministek gora egin dute¹; eta, bide hori jarraituz, nazio eta nazionalismoen ikerketatik ekarpena egin nahi da. Kasu honetan, euskal nazio(nalismo)aren eta generoaren arteko harremanak ezagutu nahi dira, euskal emakume abertzaleek mugimendu nazionalistaren subjektu politiko gisa eraikitzen dituzten diskurtsoak oinarri hartuta. Horrez gain, Euskal Herrian ere erabateko eragina duen mugimendu feministek ikergaiaren duten eragina aztertzea da asmoa. Beraz, nahiak eta asmoak egikaritze bidean, artikulu hau doktorego tesiaren prozesuko lehen fasearen emaitza da.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Nazioaren kontzeptua, gaur egun munduan sakon errotuta dagoena, azken aldi hainbat ikuspegitatik berrikusi eta zalantzan jarri da. Nazio-estatua oraindik ere nazioarteko harremanak antolatze oinarri nagusietako bat bada ere, globalizazio-prozesuek eta beste hainbat faktore sozial eta ekonomikok zalantzan jarri dute nazioak unitate politiko gisa duen eraginkortasuna (Carrera, 2010:7). Hala ere, Benedict Andersonen (1993) arabera ere ezin da nazionalismoaren

1 Adibide dira Maider Galardiren (2025) “Euskal gatazk(ar)en ertzetako biolentziak. 1980-1990eko hamarkadetan senide eta lagunak auzian inplikaturik zituzten andreen gatazken, indarkerien eta praktika erresistenteen bilketa feminista” edo Olatz Dañobeitiaren (2024) “Militantzia eta errepresio politikoaren azterketa feminista bat 90eko Ezker Abertzaleko emakumeen kasua” tesiak, besteak beste.

“amaieraz” hitz egin, politika globalean indarrean dagoen eta unibertsalki onartua den baliorik nagusiena baita. Nazioek eta nazionalismoek, beraz, gaur egun garrantzia dute eta aro modernoko ideologia nagusienetako gisa identifikatu daitezke (Mylonas eta Tudor, 2023)

Nazioa ulertzeko moduak ugari izan dira historian zehar, hala ere, 1980ko hamarkadakoak dira nazionalismoaren oinarritzko ikerketa akademiko gehienak (Armstrong, 1982; Breully, 1982; Anderson, 1983; Gellner, 1983; Hobsbawm eta Ranger, 1983; Smith, 1986; Özkirimli, 2017). Nazionalismoaren inguruko ikerketak egitea garrantzitsua da, alde batetik, komunitate, narratiba eta identitate nazionalak ulertzeko aukera ematen duelako, eta, bestetik, gaur egungo politika eta gatazkak ulertzeko tresna bat eskaintzen duelako (Mylonas eta Tudor, 2023). Hori horrela, ikerketa honek genero ikuspegia txertatu nahi dio euskal nazionalismoaren ikerketari. Izan ere, nazioaren eta nazionalismoaren inguruko teoria hegemoniko gehienek ez dituzte genero harremanak kontuan izan: nazioen sorreraz eta erreprodukzioaz hausnartu dutenean, ez diote emakumeen funtzioari arretarik jarri (Odriozola, 2016). Nazionalismoaren ikerketa orok behar du genero-ikuspegi integratua, eta horrek aukera emango luke nazionalismoa botere-harremanetan eta boterearen banaketan nola oinarritzen den hobeto ulertzeko (Palomar, 2006).

Azpirimarratzekoa da badirela nazionalismoa aztertu duten ikerketa feministak, eta Mila Amurriok (2003) dioenez, horiei esker gaur egun badakigu nazionalismoek nazioen eraikitze-prozesuetan *objektu* bihurtu dituztela emakumeak. Alabaina, ez da maila berean ikertu nazioen eraikitze-prozesuetan emakumeek, *subjektu* gisa, beren partaidetzaz diotena. Beraz, ikerketa honetan, euskal mugimendu nazionalistan emakumeak subjektu gisa eraikitzen dituzten diskurtsoetan jarriko dugu arreta. Horrez gain, feminismoek, mugimendu global gisa, eragin handia izan dute azken hamarkadetan, eta, beraz, pentsa genezake, nazionalismoen aferan ere eragin dutela. Hori horrela, euskal mugimendu nazionalistan emakumeen rol, diskurtso eta parte-hartzean feminismoen eraginak zeintzuk izan diren ere aztertu nahi da. Horretarako eta emakumei subjektu izaera aitortzeko, emakumeen narratibak izango dira ikerketa honetan ezagutza lortzeko bitarteko nagusiak².

2.1. Helburuak

Ikerketa honetan euskal nazionalismoaren eta generoaren arteko harremana aztertu nahi da, eta, horrela, euskal nazionalismoaren bestelako ikuspegi batzuk eskaini:

- Generoaren eta nazioaren arteko hartu-emana ezagutzea eta bata bestean zein eragin duen eta nola eta zergatik eragiten duen ikertzea eta hausnartzea. Alegia, euskal emakume abertzaleen narratibetan oinarrituta, genero-esperientziek eta ikuspegiek euskal nazioa irudikatzeko moduetan, bizipenetan, memorian eta helburu politikoetan nola eragiten duten aztertzea.
- Euskal mugimendu nazionalistaren etapa eta diskurtsoetan emakumearen rola eta parte-hartzearen bilakaera ezagutzea eta feminismoen eragina arakatzeko; horretarako ere, euskal emakume abertzaleek eraikitzen dituzten diskurtsoak kontuan hartuta.

3. Ikerketaren muina

Artikulu honetan tesi-proiektuaren oinarri izango den marko teorikoaren zati bat azalduko da. Bibliografia lana ezinbestekoa izango da ikerketaren helburuak betetzeko, hau da, gaia testuinguruan kokatu eta ikertzeko. Jarraian, ikerketaren lehen fasean egindako nazioarteko bibliografia jasotzen da, hiru ataletan banatuta.

3.1. Nazio eta nazionalismoen inguruko paradigmak eta teoriak: aukerak

Anthony D. Smith-en (2001) arabera hiru antinomia gailendu dira nazioen eta nazionalismoen ikerketan: nazioa "esentzia" versus nazioa "eraikuntza soziala"; nazioaren antzinatasuna versus nazioaren modernotasuna; eta nazionalismoaren oinarri kulturala versus nazionalismoaren oinarri politikoa. Auzi horiei eman dizkieten erantzunetatik sortu dituzte nazioaren eta nazionalismoaren

2 Kontuan hartuko dugu Yuval-Davisek (2010) “identitate politikei” egiten dien kritika, eta, beraz, emakume identitatea ere anitza eta dinamikoa dela ulertuko dugu.

inguruko teoriak, hau da, plano historikoan, kulturean eta politikoan horiek ulertzeko dituzten ezberdintasunetatik. Horrela, lau paradigma nagusi bereizten ditu autoreak.

1. taula. Nazio eta nazionalismoen inguruko paradigmak. (Egileak egina, 2025; Reyes, 2018; Smith, 2001)

	Primordialista	Modernista	Perennialista	Etnosinbolikoa
Sorrera	Nazioen lehen ulerkera edo paradigma	Primordialismoari kritika	Primordialismoaren eta modernismoaren eztabaibatik, primordialismoaren postulatu batzuk defendatzeko	Paradigma modernistari eta perennialistari ikusten zizkioten hutsuneei erantzuteko
Plano historikoa	Nazioak entitate organiko eta atemporalak dira, ezaugarri esentzial propioak dituztenak eta gizatalde ezberdinak antolatu dituztenak antzinatik	Nazioa historikoa da, kronologikoki eta soziologikoki nazioak modernoak dira, XVIII-XIX. mendeetan sortuak	Nazioa gertakari historikobat da, ez da jatorrizkoa; nazio batzuk antzinakoak dira, aurre-modernoak, eta beste batzuk modernoak	Gertakari historikoak dira eta ez naturalak; aurre modernoak edo modernoak izan daitezke, komunitatearen garapenak ezaugarritzen du nazioaren antzina-kotasuna
Plano kulturala eta politikoa	Lotura etniko esentzialak. Modernitateko nazionalismoa ez da pertenezia sentimenduen adierazpen bat besterik, ezaugarri etniko esentzialean eta elementu objektiboetan oinarritzen dena, arrazan, hizkuntzan edo kulturean, adibidez	Industrializazioaren eta kapitalismoaren eraginez aro modernoan sortutako esturkturak dira, aurreko lotura etnikoak lotura politikoengatik ordezkatu zituztenak	Nazioen sortzaile bakarra ez da nazionalismoa, komunitatearen oinarri diren lotura etnikoak ere sortzen dute. Nazioak komunitate batek konpartitzen dituen lotura etnikoak dira, hau da, ezaugarri objektiboak, eta komunitate horien garapenak sortzen dituenak	Elementu subjektiboek garrantzia azpimarratzen du, pertenezia sentimendua azaltzeko, batez ere. Komunitatea indartzen duten loturak etnikoak direla diote, ez politikoak; politikoak etnikoetan oinarrituta garatzen dira

Paradigma bakoitzean genero ikuspuntua zein den aztertuta, generoa eraikuntza gisa ulertzeko aukerak irekitzen dizkigu paradigma modernistak. Modernismoaren barruan kategoria ezberdinak dauden arren, konstrukzionismoan kokatuko dugu ikerketa. Hori horrela, nazioak aro berrira egokitzeko gizarte eraikuntza gisa ulertzen dira (Reyes, 2018). Autore eta teoria esanguratsuenak dira: Ernest Gellner (1983), nazioak modernitate industrialak eskatzen zuen homogeneitate kulturalerako tresna gisa ulertzen dituenak; Eric Hobsbawm (1983), nazioak eliteak “asmatutako tradizioez” baliatzen direla dioena; eta, Anderson (1983), nazioak “komunitate politiko irudikatu” gisa definitzen dituenak (Odriozola, 2016). Beraz, Gellnerrek (1983: 49) dioten bezala, “nazionalismoak sortzen ditu nazioak, eta ez alderantziz”(Nagel, 1998: 248).

Kontuan hartu behar da, komunitatea definitzeko lanek batasuna eta "bestearekiko" bereizketa azpimarratu ohi dituztela (Nagel, 1998)³. Gainera, mugak ezartzeaz gain, gizarte kategorien arabera inklusioa edo bazterketa ere eraikitzen dute, eta, beraz, ekintza sinbolikotik harago, eskubide eta aukerei dagokionez ondorio materialak ditu (Abdou, 2017:84). Zentzu horretan, ikergetara hurbilduz, paradigma modernistak aukera ematen digu nazio zein genero eraikuntzak ikertzeko. Gainera, nazioa sortu eta eraikitzeaz gain, egokitu eta eraldatu ere egiten da; hau da, komunitatea irudikatuz gain, gorpuztua ere bada, egunerokotasunean ikasia. Ildo horretan, Michael Billig-en “nazionalismo banalaren”, eta, bereziki, autore postmodernoen “eguneroko nazionalismoaren” teoriak⁴, bide ematen digute nazioa (ber)eraikitzen aritu diren subjektu generizatuari lidergotza eta estrategia aitortzeko. Autore feministen ekarpenari esker badakigu ezin direla nazioak eta nazionalismoak ikertu genero-harremanak kontuan hartu gabe.

³Nazionalismoa “pertenentzia politiken” proiektu espezifiko bat da: komunitate politikoa markatzen du eta mugak ezartzen ditu “gu” eta “besteak” artean. Pertenentzia politiken proiektu batzuk irekiagoak dira eta beste batzuk itxiagoak, baina guztietan erabiltzen da boterea, izan botere harremanak erreproduzitzeko edo haiei aurre egiteko (Abdou, 2017:84). Azken finean, “komunitate ororen eraketak biolentzia [dakar], amankomuna sortu behar den heinean, integrazioaren bidez egin behar da, baina integrazioak eskusioa dakar, zeren eta komunitaterik ez legoke diferentziarik egongo ez balitz” (Goikoetxea, 2015: 80).

⁴ Billig-en (1995) “nazionalismo hutsalaren” arabera estatu-nazioetan nazionalismoa era oharkabean erreproduzitzen da, goitik behera (Fernandez, 2024). “Eguneroko naziotasuna” korrante teoriko berriak tesi hori irekitzen du eta behetik gorako ikuspegia garatzen du: herritarrek agentzia daukate bere eguneroko bizitzan nazioa-uzietan eragiteko, kontzienteki edo inkontzienteki (Fox eta Van Ginderachter, 2018: 546)

Atal honekin amaitzeko, kontuan hartu behar da nazionalismoen helburuak eta ekiteko moduak ezberdinak direla testuinguruaren arabera, izan ere, nazionalismoak nazioa duten estatuenak, estaturik gabeko nazioenak edo naziorik ez duten estatuenak izan daitezke. Hori horrela, ikerketak euskal kasua aztertuko duenez, estaturik gabeko nazioen produkzio eta erreprodukzioetan jarriko dugu arreta, kontuan izanik ez direla *intelligentsiaren* emaitza hutsa, emakumeek prozesu horietan izan duten ekintza eta parte-hartzearen ondorio ere badirela (Amurrio, 2006).

3.2. Nazioa eta generoa harremanetan: nazioak eraikuntza generizatu eta generizatzaile gisa

Nazioak generoak zeharkatutako errealitate sozialak dira, generizatuak; eta, aldi berean, generoa (ber)eraikitzen duten errealitateak, generizatzaileak. Ildo horretan, kontuan hartzekoa da arestian aipatutako teoriak gizon mendebaldarrek idatziak direla. Gaur egun, ikerketa feministei esker, generoa edo etnia bezalako faktoreak nazioen analisirako lekua lortzen ari dira (Amurrio, 2006). Bide horretan, zenbait autorek sexualitateak eta genero rolek identitate nazionalen eta nazionalismoan duten eragina azpimarratu eta nazionalismo eta proiektu nazional guztiek generoa dutela baieztatzen dute. Besteak beste, ikerketa feministei esker, badakigu nazioa eta generoa gizarte eraikuntzak direla, hau da, nazioa ez dela psike kolektiboan existitzen ez badute instituzioek, eskolak, elizak, familiak, eta abar transmititzen (McClintock, 1995 eta Walby 2000, Gutiérrez-en aipatua, 2019). Modu berean, emakume edo gizon izatearen rol sozial eta kulturekin. Botere-harremanek eta subordinazio estrokturak eragiten dute bietan, baita lanaren banaketak, familiak eta ekonomiak ere (Walby, 1986 y 1990; de Barbieri, 1992; Gutiérrez-ek aipatua 2019: 44). Beraz, ezberdintasunak ez dira esentzialak, sozialki transmititutako eraikuntza dinamikoak baizik: belaunaldi batetik bestera eta ezaugarrien arabera (klasea, etnia, erlijioa...) aldatzen direnak (Lorber y Farrell, 1991; Gutiérrez-ek aipatua 2019: 44).

Zentzu horretan, azpimarratzekoa da genero baten, nazio baten edo sexualitate baten ahalduntzeak bestearen zapalkuntza dakarrela (Mayer, 1999: 1). Hori horrela, nazionalitatea ere harreman-termino bat bezala ulertu behar da, desberdintasun sozialen araberrako identitateak sortzen dituen. "Gizona" eta "emakumea" kategoriek elkar definitu ohi duten bezala, nazio-identitatea ez da bere berezko ezaugarrietan oinarritzen, baizik eta ez den horretan: "besteak"-rekiko diferentzia definitzen da. Bi ondorio ditu horrek, alde batetik, nazioak beste definitzaile anitzengatik harrapatuta daude, eta, bestetik, "batasunaren" izenean nazioaren aniztasunaren gainean homogeneotasun faltsu bat eraikitzen da, genero eta sexu-arauak, besteak beste, definituz eta itxiz. Nazionalismoaren gisako prozesu politiko orok behar du genero-ikuspegi integratua, izan ere, horrek, aukera emango luke nazionalismoa botere-harremanetan eta boterearen banaketan nola oinarritzen den hobeto ulertzeko (Palomar, 2006).

Nazio eraikuntzaren oinarri: familia, maskulinitatea eta heterosexualitatea

Nazionalismoa eta generoa harremanetan jartzerakoan, ezinbestekoa da familia, maskulinitatea eta heterosexualitatea, besteak beste, kontuan hartzea. Nazioak, bere burua identitate esentzializat aurkezteko, generoa egonkortu eta finkatu nahian aritu dira (Aretxaga, 1996). Nazionalismoaren indartzea eta familia ereduaren berdefinizioa prozesu paralelotzat jo daitezke politika modernoa eraikitzerakoan. Azken finean, familia ereduak irudi natural bat eskaintzen zuen, hainbat interes barne hartzen zituen eta hierarkia bat berresten zuen (Miralles, 2017: 43). Familia nazioaren historia antolatzaile moduan ulertzen da (McClintock, 1993, Navarro eta Redondok aipatua, 2021), non etxea nazio eraikuntzaren ideia nagusia den (Nagel 1998). Hori horrela, nazioek hierarkia patriarkala bere egin eta nazio-kideei generoaren araberrako rol espezifikoa esleitzen dizkie (Mayer, 1999: 14).

Nazioa familia gisa errepresentatzearekin batera (McClintock, et al. 1997, Mayer-en aipatua, 1999: 14), maskulinitatea eta heterosexualitatea izan dira eraikuntzarako oinarri (McClintock, 1995, Mayer-en aipatua, 1999: 13). Luis Navarro eta Alba Redondoren (2021) araberr hainbat dira hori defendatzen duten autoreak: nazionalismoa fenomeno maskulinoa dela eta gizon eta emakumeak modu ezberdinetan jardun dutela nazioen eta nazionalismoen gaitetan (Walby, 1997); "nazionalismoa, normalean, memoria maskulinizatutik, umiliazio maskulinizatutik eta esperantza maskulinizatutik sortu [dela]" (Enloe, 1990: 45); nazionalismo modernoa eta mendebaldeko maskulinitatea batera sortu zirela (Mosse, 1996: 7), kolonialismoaren eta inperialismoaren ideologiekin batera (Mackenzie, 1987; Walvin, 1987; Bológh, 1990); eta, nazioak proiektu maskulino gisa ulertu izan direla, non instituzioak, prozesuak eta ekintzak maskulinizatu egiten diren (Pateman, 1989; Connel, 1995). Horrez gain, heterosexualitatea ere mendebaldeko estatu

modernoren osagai gisa identifikatzen da (Peterson, 1999, in Rodó, 2019). Horren adibide dira Ochy Curiel-en “heteronazioa” kontzeptua (2013: 174) edo nazioa proiektu heteromaskulino gisa definitzea (Mayer, 1999: 6). Izan ere, XX. mendeko Mendebaldeko Europan nazionalismoak sexualitatea kontrolatzen lagundu zuen. Zentzu horretan, nazionalismoa heterosexista gisa ulertu izan da, jarrera heterosexualaren bidez genero erregimena eraiki baita, maskulinitatearen eta feminitatearen jarrerak zehaztuz (Mosse, 1985; Thomson-en aipatua, 2020: 6).

Azken finean, nazioaren, generoaren eta sexualitatearen arteko harremanean, boterea bihurtzen da narratibarik garrantzitsuenak. Botereak, beste edozein diskurtsok baino gehiago, diskurtsu horietako bakoitzaren eta haien arteko hierarkia-erlazioak determinatzen dituelako. Hori horrela, proiektu nazionala gizonak irudikatu dutenez eta eraikuntza maskulino gisa diseinatu denez, hierarkia patriarkalak nazioaren oinarri ere bihurtu dira. Nazioak, generoak eta sexualitateak elkar eragiten duten bezala, nazio batek, genero batek eta sexualitate batek menderatzen dute (Mayer, 1999). Hegemonia biolentzia sinbolikoan oinarritzen da, mundua ikusteko era zehatz bat orokor bilakatzen duelako. Hori horrela, batzuen kapital sinbolikoa besteen biolentzia sinbolikoa da (Goikoetxea, 2015: 88). Hala ere, nazio bakoitzeko baldintza sozial, politiko eta ekonomikoak estatikoak ez direnez, zalantzan jartzen hasi da nazio maskulino horren nagusitasuna. Izan ere, nazioa beti "eraldatzen" ari den bezala, generoa eta sexualitatea ere eraldatzen dira (Mayer, 1999).

Emakumeak nazio eta nazionalismoetan

Gizartearen dimentsio genealogikoa naturalizatzeak genero-rol hegemonikoak ezartzen ditu: Pateman-en (1988) kontratu sexualaren teoriarekin lotuta, gizonak esparru publikoa okupatzen dute eta emakumeek pribatua, ez politikotzat jotzen dena (Yuval-Davis, 1997, Rodó aipatua, 2019). Hain zuzen, nazioa eta nazionalismoa esfera publikoan eztabaidatu ohi dira. Horrek ondorioak ekarri ditu bai emakumeek nazioa bizi duten eran, baita hauek nazioari buruz egindako ikerketetan (Rodó, 2019).

Aurreko puntuan azaldu den bezala, nazio guztiak daude genero eraikuntza ahaltsuen mende (McClintock, 1993; Rodó aipatua, 2019), hala ere, 1990. hamarkadara arte ez ziren nazio ikasketak ikuspegi feministatik aztertu (Palau, 2015, Rodó aipatua, 2019). Ordutik, feministek ikusarazi dute nazioek emakumeen gorputzak kontrolatu, zelatatu eta erregulatu dituztela beren interesetarako eta nazioaren mantenurako (Rodó, 2019). Kontuan hartzekoa da emakumeek beti izan dutela harreman gatazkatsua diskurtsu nazionalistekin, baita erresistentzia edo kolonialismoaren aurkakoeekin ere. Sarritan, emakumeak baztertuta edo generoaren arabera mugatuta gelditu dira. Hori horrela, nazioa emakume irudikapenekin lotzeak, emakumeak talde etnikoen ugaltzaile biologiko gisa edo kultura kolektiboaren sinbolo gisa aurkeztea eragin du. Hala ere, horren aurrean, Floya Anthias eta Nira Yuval-Davis bezalako autoreek, teoria garatu dute erresistentzia gisa, generoaren, nazioaren eta herritartasunaren arteko harremanak sakon aztertuz (Carrera, 2010). Besteak beste, emakumeek prozesu nazionaletan duten paperaren inguruan bost dimentsio aipatzen dituzte: 1) Komunitate etnikoetako kideen sortzaile biologiko gisa; 2) Kolektibitatearen mugen sortzaile gisa; 3) Kolektibitatearen ideologiaren eta kulturaren igorle gisa; 4) Etnia eta nazioen eraketan, eraldaketan eta eraikuntzan erabilitako diskurtsu ideologikoetako sinbolo pasibo gisa; 5) Borroka nazional, politiko, militar eta ekonomikoetako parte hartzaile aktibo gisa (1989: 7, Smith-ek aipatua, 2001).

Horrez gain, genero harremanak aztertzeko eta emakumeek proiektu nazionaletan duten papera azaltzeko Yuval-Davis-ek (2004) nazionalismoen hiru dimentsio bereizten ditu: *Volknation* edo dimentsio genealogikoa, *Kulturnation* edo dimentsio kulturala, eta *Staatnation* edo estatuan oinarritutako herritartasuna. Autorearen arabera (2010) emakumeak baztertuak izan dira proiektu etniko hegemonikoetan, baina erresistentzia forma propioak garatzen dituzte. Amurriok (2006) dioenez, ikerketa feministetan nabarmendu da emakumeak gizonak bezain konprometituak agertzen direla proiektu nazionallean, baina konpromezua era ezberdinetan erakusten dutela. Ildo horretan, genero estrukturan ideia nazionalak eragina duela nabarmentzen da. Gainera, defendatzen duten proiektua bera ere ezberdina izan daitekeela argudiatzen du Amurriok (2006), eta, beraz, nazioaren eta generoaren artean eragina aldebikoa izango litzatekeela.

Arestian aipatu bezala, nazionalismo mota ezberdinak daude. Hori horrela, emakumeen rola nazio eraikuntza konkretuetan aztertu behar da, izan ere, nazionalismo batzuetan besteetan baino rol askatzaileagoa izan dezakete emakumeek (Amurrio, 2003). Identitateak eta interesak aurre

baldintza estrukturalen, politiko eta kulturalen menpekoak dira, eta, beraz, horien arabera izango da emakumeen mugimenduen gaitasuna tokiko inpaktuak sortzeko eta nazio eraikuntzan ere erregimen aldaketetan eragiteko. Hori horrela, emakumeen borroka tokiko gisa ulertu behar dira, beren ezaugarri espezifiko eta historikoekin, baina, aldi berean, nazioartekoak ere, etengabeko dialogoan baitaude kanpoko pentsamendu eta mugimenduekin (Ray eta Korteweg, 1999). Ildo horretan, estaturik gabeko nazioetako eraikuntza prozesuetan genero harremanen eraikuntza ezberdina izan dela iradokitzen du (Odriozola, 2016).

3.3. Nazionalismoa eta feminismoa: harreman gatazkatsua.

Sarreran aipatu dugun bezala, feminismoaren eragina ere aztertu nahi da lan honetan. Azken hamarkadetako mugimendu politiko garrantzitsuenak izan da (Varela, 2019:121), eta gaur egun ezagutza eta oinarri teoriko feminista zabala da. Izan ere, feminismoak iraultza sozial bat eragin du (Federici, 2019: 248). Hala ere, irakaspenak irakaspen, historikoki emakumea beti egon da gizonen menpe (Beauvoir, 2019). Bide horretan, azpimarratzekoa da emakumeak politikan parte hartzen edo politikak aldatzen saiatu diren aldiro gizonezkoen erreakzioak egon direla, edozein leku eta garaitan. Horrek, estrategia eta kontzientziazio modu berriak sortzea eragin du, mugimendua ber formulatzea, hein batean. Hala ere, emakumeak politikatik eta botere edo erabaki guneeetatik kanporatuak izan dira etengabe, bai kulturalki, bai bortxaz. Sarri, eragin gunetara heldu direnetan ere gizonezkoen interesak lortzeko izan da (Rowbotham, 2020; Varela, 2019). Egitura horri feminismoak egindako desafioak egoera problematizatu du, eta auzi praktiko eta intelektual bilakatu du (Connell, 2022). Bide horretan, feminismoaren ibilbidean antzekotasunak identifikatu daitezke mundu mailako testuinguru ezberdinetan ere. Emakumeek erresistentzia autonomoak garatu dituzte, sarri askapen nazional edo sozialaren pean antolatuta dira, lan karga hirukoitza izan dute (enplegua/zaintza/politika) eta menderakuntza egoerak bizi izan dituzte behin eta berriz (Rowbotham, 2020).

Feminismoak politikan eragiteko gaitasuna erakutsi du. Mari Luz Estebanek gaur egungo teoria eta praxi politikoaren aldaketak nabarmentzen ditu eta argi dio aldaketa horietan “feministen intzidentzia erabatekoa izan d[ela]”⁵ (2017: 33). Horrez gain, nazionalismoez dihardugunez, politikaz, eta, aldi berean, mugimenduz ari gara. Bigarrenari dagokionez, emakumeek rol garrantzitsuak eta sarritan gutxietsiak bete dituzte: muga nabarmenak izan ohi dituzte, patriarkatua eta botere-harremanak itxuraz aurrerakoak diren testuinguruetan ere agertzen baitira (Rowbotham, 2020). Hau da, kolektiboak eta praktika sozialak ere genero egiturak dira (Connell, 1987). Beraz, gizarte mugimenduetako parte-hartzea, funtzionamendua eta helburuak ere generoak zeharkatuta egongo dira⁶. Hori horrela, botere banaketa arazo estruktural gisa landu behar da eta boterea eskuratzeko estrategiak ere bide horretan eraiki (Martinez, 2014).

Aipatutako guztiak eragina izan du feminismoaren eta nazionalismoaren arteko harreman gatazkatsuan. Zehazki, tentsio eta gatazka nagusi gisa identifikatzen dira: lankide gizonezkoen aurreiritzi patriarkalei aurre egiteko zailtasunak, borroka nazionalista zatitzeaz akusatzea edo feministen eskaerei entzungor egitea (Vickers 2000, Rodók aipatua, 2019). Oro har, emakumeak paper txikiago edo sinbolikoetara baztertzen direla argudiatu da, eta, horrek, emakumeen ekarpenak ikusezin bihurtzea ere eragin duela (Enloe, 1990; Rodók aipatua, 2019).

Hori horrela, harreman gatazkatsua da nazionalismoarena eta feminismoarena; hala ere, badira biak uztartzeko saiakerak. Genero-erresistentziak garatu dira mugimendu nazionalistetan, rol tradizionalak zalantzan jarritz. Lois A. West-ek azaltzen duenez, emakumeak nazionalismoaren eta feminismoren esanahiak (ber)eraikitzen ari dira emakumeen ikuspegitik. Hein batean genero eta nazio eskubideak aldi berean lortzea bilatzen dute testuinguru sozial, ekonomiko eta politiko ugaritan (1997, xiii–xxx; Rodók aipatua, 2019). Izan ere, marko intersektionaletik eta perspektiba feministatik identitate nazionala zapalkuntza esparru gisa identifikatu daiteke, baita erresistentziarako gune ere, emakumeak nazio eraikuntzarako agente baitira (Rodó, 2019).

5 Garrantzitsua da argi azaltzea politika egiteko modu berriez edo mundua irudikatzeko modu berriez ari garenean ez dugula “etika femenino” batez hitz egiten. Horrek, emakume izatea naturalizatuko luke (Martinez, 2014), eta, badakigu, Simone de Beauvoirkrek aspaldi esan zuen bezala, “emakume ez [dela] jaiotzen: egin egiten [dela]” (2019: 11). Politika feministak egitea, politikaren bestelako esanahi bat eraikitzearekin lotu behar da: mikroa eta makroa harremanetzaekin (Montero, 2016).

6 Kontua da arazoa ez dela funtzio banaketa orekatzearekin soilik konpontzen, izan ere, ohikoa da emakumeak funtzio batzuk hartzen hasten direnean funtzio horiek balioa galtzea (Martinez, 2014).

Ikergaira hurbilduz, emakumeak errazago antolatuko dira helburu feministak proiektu nazional batean txertatzeko, baldin eta proiektu hori ireki eta pluralista bada (Walby, 1997; Rodók aipatua, 2019). Kasu horietan, gutxiengo nazionalistako emakume batzuk beren nazioak askatzeko borrokan inplikatu daitezke, nahiz eta emakumeek gizonen proiektu nazional desberdin bat babestu dezaketen. Bide horretan, feminismoak nazio askapenerako mugimendu anti-inperialista modernoekin bat egiten du (Jayawardena, 1986; Rodók aipatua, 2019). Nazio identitate eraikuntzan mugimendu feministak parte hartu du Katalunian, EHn, Eskozian, Quebecen, Galizian, eta abar. Izan ere, independentziaren aldeko borroka identitate nazionalarekin eta gizarte aldaketa baterako aukerekin lotzen da, eta hori elementu garrantzitsua da talde feministek eduki dezaketen interesa ulertzeko (Rodó, 2019).

4. Ondorioak

Gaur egun, interesgarriak bezain konplexuak diren garaietan bizi gara nazionalismoaren ikasketa akademikoari dagokionez. Nazionalismo sentimendu mota berriak (eta zaharrak) mundu osoan (berriz) agertzen ari dira. Generoa ulermen horren oinarria da, eta generoaren kontsiderazio sakonagoak behar dira nazionalismoaren ikasketetan (Thomson, 2020: 8). Testuinguruaren garrantzia azpimarratuta, ikergaia Euskal Herriko markoan aztertu behar da. Hori horrela, Euskal Herrian nazio eta nazionalismoen ikergaia generoarekin gurutzatzeak aukerak irekitzen dizkigu, alde batetik, doktrinaren baitan ikuspegi berriak irekitzeko eta indartzeko, hau da, akademia mailan genero-ikuspegiak duen garrantzia azpimarratzeko. Bestetik, euskal mugimendu nazionalistaren baitan emakumeen bizipenak, papera, rola, aldarrikapenak, eta abar, ezagutu eta mahaigaineratzeko, hau da, euskal nazionalismoaren diskurtso ugariak ezagutzeko, baita feminismoaren eta nazionalismoaren arteko harremana hobeto ulertzeko ere.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Aurrekarien inguruan arestian jasotako informazioa ikerketaren lehen fasean egindako nazioarteko bibliografiaren arakatze bat da. Hori horrela, etorkizunera begira lehen pausua ikergaia Euskal Herriko testuinguruan kokatzea izango da. Behin bibliografia lanak amaituta, lan enpirikoari ekingo diogu, ikerketaren muina izango dena. Fase honetan ikergaiaren helburuei erantzuteko informazioa lortzen saiatuko gara. Horretarako, metodologia mistoa erabiliko da: ikerketa teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak uztartuko dira. Teknika kuantitatiboei dagokienez, “Naziometroa” inkestako datuen analisisia egingo da. Hortik, euskal nazioarekiko zein feminismoarekiko jarrerak aztertuko dira genero, lurralde eta adinaren ikuspuntutik. Horrela, Euskal Herriaren argazki bat osatzea da helburua: generoaren, lurraldetasunaren, adinaren eta feminismoarekiko hurbilpenaren arabera nazio atxikimendua ezberdina den edo ez. Esan bezala, teknika kualitatiboak ere erabiliko dira. Horri dagokionez, elkarriketa sakonak eta talde eztabaidak egingo dira, euskal emakume abertzaleen narratibak jasotzeko. Teknika horietan kontuan hartuko da lurraldetasuna, adina, jatorria eta militantzia, besteak beste. Horren bidez, euskal emakumeek subjektu gisa euskal nazioaz diotena jakin nahi da, baita feminismoak beren roletan eta parte hartzean nola eragin duen ere.

6. Erreferentziak

- Abdou, L. H. (2017). ‘Gender nationalism’: The new (old) politics of belonging. *OZP – Austrian Journal of Political Science*, 46, 83-88.
- Amurrio, M. (2003). *Genero, nazio eta nazio hezkuntza: ikastoletako irakasleria*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua, Leioa.
- Amurrio, M. (2006). Las mujeres en el proceso generizado de construcción de la nación vasca. *Cuadernos de Historia Contemporánea*, 28, 119-134.
- Anderson, B. (1993): *Comunidades imaginadas. Reflexiones sobre el origen y la difusión del nacionalismo*, Fondo de Cultura Económica [lehen argitalpena, ingelesez, 1983an], Mexiko Hiria.
- Aretxaga, B. (1996). ¿Tiene sexo la nación? Nación y género en la retórica política sobre Irlanda. *Arenal. Revista De Historia De Las Mujeres*, 3(2), 199–216.
- Beauvoir, S. (2019). *Bigarren Sexua I*. Elkar. Donostia.
- Carrera, I. (2010). Introducción. In Bastida, P.; Rodríguez C. eta Carrera, I. *Nación, diversidad y género. Perspectivas críticas*. Anthropos, Barcelona.

- Connell, R. W. (1987). *Gender and power. Society, the Person and Sexual Politics*. Polity Press, Oxford, England.
- Connell, R. W. (2022). *Maskulinitateak*. Elkar, Donostia.
- Curiel, O. (2013). *La Nación Heterosexual. Análisis del discurso jurídico y el régimen heterosexual desde la antropología de la dominación*. Brecha Lésbica eta en la frontera. Bogotá, D.C.
- Dañobeitia, O. (2024). *Militantzia eta errepresio politikoaren azterketa feminista bat 90eko Ezker Abertzaleko emakumeen kasua*. Doktorego tesia. UPV/EHU.
- Esteban, M. L. (2017). *Feminismoa eta politikaren eraldaketak*. Lisipe, Zarautz.
- Federici, S. (2019). *Mundua berriz liluratuz*. Katakarak, Iruña.
- Fernandez, J. (2024). Nazionalismo subliminala(k) eta testuliburuak: alfabetatze nazional paraleloak Euskal Autonomia Erkidegoan. *Uztaro*, 130, 87-111.
- Fox, J. E. eta Van Ginderacher, M. (2018). Introduction: Everyday nationalism's evidence problem. *Nation and Nationalism*, 24 (3), 546-552.
- Galardi, M. (2021). Euskal gatazk(ar)en ertzetako biolentziak: 80-90eko hamarkadetan senide eta lagunak gatazkaren erdigunean izan dituzten andreen memoriaren eta praktika erresistenteen bilketa feminista bat. In *IV. Ikergazte. Nazioarteko ikerketa euskaraz. Kongresuko artikulu bilduma. Gizarte Zientziak eta Zuzenbidea*, UEU, 275-282.
- Goikoetxea, J. (2015). Euskara, estatua eta feminismoa. *Jakin*, 208, 77-89.
- Gutierrez, N. (2019). Mujeres y el origen común de la nación en México. *Revista Cultura y Representaciones Sociales*, 16, 40-61.
- Martinez, J. (2014). *Berrikuntza Demokratiko Feministak*. Emakunde, Bilbo.
- Mayer, T. (1999). Gender ironies of nationalism: setting the stage. In Mayer, T. *Gender ironies of nationalism. Sexing the nation*, Routledge, 1-25.
- Miralles, X. (2017). El género de las naciones. Un balance y cuatro propuestas. *Ayer. Revista De Historia Contemporánea*, 106(2), 21-46.
- Montero, J. (2016). *Feminizar la política*. Aporrea.
- Mylonas, H. eta Tudor, M. (2023). *Varieties of Nationalism. Communities, Narratives, Identities*. Cambridge Elements, Politics of Development, England.
- Nagel, J. (1998). Masculinity and nationalism: gender and sexuality in the making of nations. *Ethnic and Racial Studies*, 21:2, 242-269.
- Navarro, L. eta Redondo, A. (2021). National Projects and Feminism: The Construction of Welfare States through the Analysis of the 8M Manifestos of Progressive and Conservative Political Parties in Spain. *Genealogy*, 5, 82.
- Odriozola, O. (2016). Erakunde bat baino gehiago: ETA herri mugimendu gisa (1958-1968). Doktorego tesia. UPV/EHU.
- Özkirimli, U. (2017). *Theories of nationalism. A critical introduction*. Palgrave, Basingstoke eta New York.
- Palomar, C. (2006). Las mujeres en la producción de la nación. *Política y Cultura*, 25, 222-231.
- Pateman, C. (2018). *Kontratu sexuala*. Elkar, Donostia.
- Ray, R. eta Korteweg, AC. (1999). Womens movements in the third world: Identity, Mobilization, and Autonomy. *Annual Review of Sociology*, 25, 47-71.
- Reyes, G. (2018). Breve análisis a los “paradigmas clásicos del nacionalismo”. *Universitas, Revista De Filosofía, Derecho Y Política*, 28, 59-84.
- Rodó, M. (2019). Gender, Nation, and Situated Intersectionality: The Case of Catalan Pro-independence Feminism. *Politics & Gender*, 16, 608 - 636
- Rowbotham, S. (2020). *Mujeres, resistencia y revolución*. Txalaparta, Iruña.
- Smith, A. D. (2001). *Nacionalismo y Modernidad*. ITSMO, Madril.
- Thomson, J. (2020). Gender and Nationalism. *Nationalities Papers*, 48: 1, 3-11.
- Varela, N. (2019). *Feminismo para principiantes*. Penguin, Madril.
- Yuval-Davis, N. (2004). *Género y nación*. Flora Tristán, Perú.
- Yuval-Davis, N. (2010). Etnicidad, relaciones de género y multiculturalismo. In Bastida, P.; Rodríguez C. eta Carrera, I. *Nación, diversidad y género. Perspectivas críticas*. Anthopos, Barcelona.

7. Eskerrak eta oharrak

Eusko Jaurlaritzako diru laguntzari esker da posible doktorego tesi hau. Parte Hartuz ikerketa taldeari eta orain artean inguruan eta zuzendaritza lanetan izan direnei, eskerrak.